

Dantza garaikidearen onena ikusgai izango da Beasainen

Azken eguneratzea: Astelehena, 07 Maiatza 2018 15:13

Argitaratua: Astelehena, 07 Maiatza 2018 15:13



Beasaingo udalak dantza garaikidearen alde egiten du eta “Maiatza dantzan” programaren baitan hiru dantza ikuskizun antolatu ditu Beasainen maiatzerako

Dantzaren eta bereziki dantza garaikidearen alde eginez, Beasaingo Udalak hiru dantza ikuskizun antolatu ditu maiatzerako. Honela, “Maiatza dantzan” egitaraua berriro itzultzen da Beasainera. Sarea, Euskadiko antzoki sareak antolatzen duen 2018ko dantza zirkuituko partaide da Beasaingo Udala eta urtariletik abendura bitartean Euskal Herrian antolatu diren ikuskizunen zerrendaren barruan aurkitzen dira Beasainen antolatu diren hiru ekitaldiak.

Maiatzeko udal agendan txertatuta dauden hiru ekitaldi hauek berriak izango dira. Udalak dantzarekin duen konpromisoa herriko taldeez gain haratago eraman nahi izan du honela. Hala ere, gaur gaurkoz Udalak Dantzaki, Aurtzaka, Ostadar eta Gala Ballet eskolarekin dituen hitzarmenak, kultur balio gisa, tokiko dantza jarduerarekiko duen konpromisoaren isla dira.

Maiatzaren 10, 17 eta 25ean eskainiko diren dantza garaikidearen

Dantza garaikidearen onena ikusgai izango da Beasainen

Azken eguneratzea: Astelehena, 07 Maiatza 2018 15:13

Argitaratua: Astelehena, 07 Maiatza 2018 15:13

ikuskitzuneekin Udalak urrats bat gehiago eman du. Sareak aurten antolatu duen Dantza zirkuitua hamalagarrena da eta Beasaini duen populazioaren arabera hiru ekitaldi programatzea egokitu zaio. Udalak hartara, lehen aldiz dantza ekimen mota honetarako aurrekontua jarri zuen eta diru laguntzak jasotzeko aukera izan du herrira honelako ikuskizun mota hau ekartzeko.

Ikuskizunak doan

Ikuskizun guztietarako sarrera doan izango da. Honako konpainia hauek izango dira Beasainen: maiatzaren 10ean Bideluze plazan [Sagartu](#) ikuskizuna Oinkari Dantza Taldeak eta Hika Teatroa taldeak eskainiko dute. 17an Bideluze plazan ere, [Irradak](#) deituriko ikuskizuna Alurr Dantza Taldearen eskutik ikusi ahal izango da eta azkenik 25ean [Hariak](#) ikuskizuna eskainiko du Ertza konpainiak Usurbe Antzokian. Maiatzaren 10ean eta 17an euria egingo balu, bi ikuskizunak Usurbe Antzokira pasako dira. Ekitaldi guztiak ordu berean hasiko dira, arratsaldeko 19:30tan.